


EUSKERA

APIRILA MAIATZA EKAINA 2019



AZKUNA  
ZENTROA  
ALHÓNDIGA  
BILBAO

Bilbao

LITERATURA / NARRATIBA **API. 11** (ost.)

# Topaketa

## José Ángel Mañasekin



José Ángel Mañas idazleak *Los conquistadores de lo imposible* bere azken liburuari buruzko xehetasunak eskainiko ditu, Maria Eugenia Salaverrik gidatuta Medialab 2 aretoan ikus-entzuleekin izango duen topaketan.

Mañasek kultuko eleberriak idatzi ditu, esate baterako, Kronen tetralogiakoak. Horrez gain, saiakeragilea eta gidoilari arrakastatsua da. *Los conquistadores de lo imposible* lanean, eleberri historikoa jorratzen du, gizateriaren epopeiarik handienetako baten berri kontatzeko: Amerikaren aurkikuntza eta konkista. Narratzaile liluragarri batek epika, abenturak eta pertsonaia harrigarriak eta ohiz kanpokoak sortzen ditu, eta 1492. urteko mundura eramaten gaitu, lurraren laurden bat ezezaguna zen eta kontinente bat historian azaltzeko gertu zegoen garaira.

////////////////////////////////////

**Apirilak 11, osteguna**

19:00

**Medialab 2. Mediateka BBK**

Sarrera dohainik, gonbidapena izanez gero (jaso infopuntuan) leku guztiak bete arte.

////////////////////////////////////